



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/11/15

Batzar Nagusiek ez dabe onetsi Foru aurrekontuaren %0,7 garapenerako lankidetzara bideratzeko Arauz Besteko Proposamena

Bizkaiko Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Batzordeak ez dau onetsi gaur goizean Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena, Foru Aldundiari, 2019ko aurrekontu osoaren %0,7a garapenerako lankidetzara bideratzea eskatzeko. Ekimenak EH Bildu taldearen aldeko botoa baino ez dau jaso, Talde Popularra abstenidu egin da eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabe. Talde Mistoko ordezkaria ez da bileran egon.

Eneritz De Madariaga batzordekideak defendidu dauen Arauz Besteko Proposamena, 2015eko zemendiaren 18an Batzar Nagusietako Osokoan onetsi zan beste ekimen batean oinarritzen zan. Bertan, Lankidetzara zuzendutako aurrekontuak, apurka-apurka handitzen joateko agintzen jakon Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailari, legealdi honen bukaerarako aurrekontuaren %0,7ra heltzeko. De Madariagak azpimarratu dauenez, aurrekontuen aurreikuspenean ez da ehuneko horretara ailegetan eta, bere eretxiz, ez dira beteten osokoak hartu eban erabagia eta beste arteztarau batzuk, Bizkaiko Lankidetzarako 2017-2020 Plan Zuzendaria, adibidez.

Botoa azaltzeko orduan, Bizkaiko Foru Aldundiko gobernua osatzen daben taldeek adierazo dabenez, Gernikan onetsi zan ekimenak ez dau aitutzen Aldundiko aurrekontu osoa, erabilgarria baino, eta lankidetzara zuzendutako ehunekoa oraindino %0,7ra heldu ez bada be, legealdi honetan esfortzu garrantzitsuak egin dira, eta partida hori aurrekontuen hazkunde tasa orokorraren ganetik igo da. EH Bilduk, Batzar Nagusiek Osokoan onetsi eben neurria ez betetearen larritasuna azpimarratu dau, eta bozeroaleak nabarmendu dau helburu hori lortzea posiblea dala, horretarako aurrekontua egon badagolako, baina lehenetsunak beste batzuk dirala. Bizkaiko Talde Popularreko ordezkariak abstentzinoa justifikau dau esanez 2015eko Arauz Besteko Proposamena bere ekimena izan zala, baina, lankidetzarako %0,7 horrek aurrekontu erabilgarriari buruz egiten ebala berba, eta horretarako aukerea egotearen baldintzapean, Bizkaiko herritarren beharrak baztertu barik”. Azkenean, ekimena ez da onetsi, kontrako 9 boto, aldeko 5 eta abstentzino bat jaso ditualako. Talde Mistoaren ordezkaria ez da bileran egon, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontsejuaren bilera batean egon dalako.

BAZTERTUTA DAGOZAN PERSONAK

Batzar Nagusietako saio berean, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Berdintasuneko Foru Diputatua, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek, hurrenez hurren, planteautako gai biri erantzutera etorri da batzordera.

Lehenengoa, Eneritz De Madariaga Podemos taldeko batzordekidearen agerraldi eskaria izan da, gaua kalean pasetan daben personen datuak eta bere Sailak arazo horren inguruan egiten dauenari buruzko azalpenak emoteko, orain denpora gitxi egin dan etxerik bako personen gaueko zenbaketa bat eta Euskal Herriko Unibertsitateak, gai horren inguruan egin dauen azterlana ikusi ostean. Teresa Laespadak, zenbaketaren datuak ez dirala argitaratu esanez erantzun dau, prentsarako ohar baten bitartez aurreratu baino ez dirala egin, eta EHU-UPVren aitaturako azterlana Bilboko Udalaren agindua dala. “Ez litzateke arduratsua ezta egokia izango oraindino ez daukaguzan datuak baloretea”, azpimarratu dau Laespadak. Dana dala, foru diputatuak bere Sailaren jarduketak eskumenen esparru zorrotzera mugatu ditu, eta, “jagokun zatian, ahal dogun guztia egiten dogula” azpimarratu dau, amaitzeko.

Foru Gobernua eusten daben taldeek bat egin dabe Diputatuak esandakoagaz, eta EH Bilduren aldetik gizarte arloko politiketan lidergoa eskatu jako, eta baita informazioa eta gardentasuna be. Bizkaiko Talde Popularretik, bozeroaleak adierazo dau normala dala Sailak oraindino ez daukazan datuen ganean berbarik ez egitea, baina adierazo dau emoten dauela datuak “arduratzeko modukoak dirala, gizarte arloko kontsiderazioengaitik eta uriko segurtasunarengaitik”.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Batzordearen gaurko saioa Arantza Urkaregi EH Bilduko bozeroaleak, bazterketaren kontrako zerbitzuen erabiltzaileek zerbitzu horreen jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko daukiezan tresnen ganean egin dauen galdereagaz osatu da. Teresa Laespadak erantzun dauenez, une honetan indarrean dagon laguntza ereduak zerbitzuaren onurak jasoten dituenen ikuspegia barru hartzen dau, “partaidetzarako, gogoetarako eta komunikazinarako behar besteko bideak dituelako; hori dala eta, euren eretxia behar dan moduan geratzen da jasota”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
15/11/18

Las Juntas Generales desestiman una Proposición No de Norma para destinar el 0,7% del presupuesto foral a cooperación al desarrollo

La Comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de las Juntas Generales ha desestimado esta mañana una Proposición No de Norma, presentada por el Grupo Juntero Podemos Bizkaia, en la que se instaba a la Diputación Foral a destinar el 0,7% de su presupuesto total para 2019 a la partida de Cooperación al desarrollo. La iniciativa solo ha recogido el apoyo de EH Bildu, mientras que el Grupo Popular Vizcaíno se ha abstenido, y han votado en contra Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, en ausencia del representante del grupo Mixto.

La Proposición No de Norma, defendida por la juntera Eneritz De Madariaga, se apoyaba en otra iniciativa que fue aprobada en el Pleno de las Juntas Generales del 18 de noviembre de 2015, instando al Departamento de Empleo, Inclusión social e Igualdad a aumentar progresivamente los presupuestos destinados a la Cooperación para alcanzar el 0,7% del presupuesto disponible al final de esta legislatura. De Madariaga ha subrayado que este porcentaje no se alcanza en la previsión presupuestaria, contraviniendo en su opinión el acuerdo plenario y otras directrices, como el Plan Director de la Cooperación de Bizkaia 2017-2020.

En los turnos de explicación de voto, los dos grupos que conforman el gobierno de la Diputación de Bizkaia han aducido que la iniciativa aprobada en Gernika no se refería al presupuesto foral total, sino al disponible, y que, aún cuando el porcentaje destinado a cooperación no haya alcanzado aún el 0,7%, se han hecho esfuerzos importantes a lo largo de la presente legislatura, y esta partida se ha incrementado por encima de la tasa global de crecimiento de los presupuestos. EH Bildu ha puesto el acento en la gravedad de incumplir una medida aprobada en Pleno por las Juntas Generales, y su portavoz ha subrayado que dicho objetivo es posible porque hay disponibilidad presupuestaria, pero que son otras las prioridades. El representante del Grupo Popular Vizcaíno ha justificado su abstención señalando que la Proposición No de Norma de 2015 fue una iniciativa suya, pero que el 07% de ayuda se refería al presupuesto disponible, y bajo la condición de que las necesidades lo permitieran y sin dejar de atender los requerimientos de la población de Bizkaia". La iniciativa ha quedado rechazada por 9 votos en contra, 5 a favor y una abstención, con la ausencia del representante del Grupo Mixto por su asistencia a una reunión del Consejo para la Sostenibilidad del Territorio Histórico de Bizkaia.

PERSONAS EN EXCLUSIÓN



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En la misma sesión de las Juntas Generales de Bizkaia, la diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha comparecido para responder a dos cuestiones planteadas por Podemos Bizkaia y EH Bildu, respectivamente.

La primera ha sido una solicitud de comparecencia a petición de la juntera de Podemos Eneritz De Madariaga acerca de los datos de personas que pernoctan en la calle y la actuación del Departamento a este respecto, en relación con un reciente recuento nocturno de personas sin hogar y un estudio realizado por la Universidad del País Vasco en torno a esta misma cuestión. Teresa Laespada ha respondido argumentando que los datos del recuento no han sido publicados, sino adelantados a través de una nota de prensa, y que el referido estudio de la UPV-EHU es un encargo del Ayuntamiento de Bilbao. “No sería responsable ni prudente valorar datos de los que aún no disponemos”, ha insistido Laespada. La diputada foral ha enmarcado en todo caso las actuaciones de su Departamento en su estricto ámbito competencial, y ha concluido insistiendo en que “en la parte que nos corresponde, echamos el resto”.

Estos argumentos han sido suscritos por los grupos que apoyan al Gobierno foral, mientras que por parte de EH Bildu se ha solicitado al Departamento de Empleo liderazgo en políticas sociales, además de información y transparencia. Desde el Grupo Popular Vizcaíno, su portavoz ha señalado que es normal que el Departamento no comente datos de los que aún no dispone, matizando que las conclusiones a las que se apunta “son preocupantes, tanto por las consideraciones sociales como por las de seguridad ciudadana”.

La sesión de hoy de la Comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de las Juntas Generales de Bizkaia se ha completado con una pregunta de la portavoz de EH Bildu Arantza Urkaregi acerca de los instrumentos de los que disponen las personas usuarias de los servicios contra la exclusión para participar en el seguimiento y evaluación de dichos servicios. Teresa Laespada ha contestado que el vigente modelo de asistencia integra la visión de quienes se benefician del servicio, “ya que disponen de vías suficientes de participación, reflexión y comunicación, por lo que su opinión queda perfectamente recogida”.